

Funtsezko bazkideak

Filmak eta haren lizentziak lortu ahal izateko, Zumarragako zinema eta udaletxearen laguntza jasoko dugu. Gure proposamena hau eginez filmak erakusteagatik sortu ahal zaizkigun arazo legalak eta ahalik gehien



murriztea da. Esan bezala honekin lortu nahi duguna da filmen lizentziak lortzea, jendea entretenitu ahal izateko.



Zumarraga, Urretxu eta inguruan dauden baserritarren laguntza ere jasotzea espero dugu. Elkarketa honen bidez lortu nahi duguna da, autozinean salduko dugun janaria lortzea eta gure baserritarren

lehengaiak eta hobeto ekoiztuta dauden janari ekologiko eta osasungarria. Eta orain aipatu bezala, gure inguruko baserritarren janaria, osasungarria eta ekologikoa da, eta ziurtatzen gara gainera saltzen dugun janaria ekoiztutako lehengaien honerenak direnak.



Publizitatea egingo diegun herriko beste enpresa batzuk. Gure autozinean dirua inbertitzea espero dugu eta hori eskertu ahal izateko eta haiek dirua ere lortu ahal izateko esan bezala publizitatea egingo diegu, kartelen bidez. Kartel hauek komuneko ateetan eta autozinean zehar sakabanatua

jarriko dugu. Horrez gain, sare sozialak izango ditugunez haien bidez ere publizitatea egingo dugu.

